ANGELUKO IKASLEAK.

OSOGUNEKO ERAKASKERA.

1996-97 IKAS-URTHEA

## HOGOITALAUGARREN ERAKASPENA. 

### (I) ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA.

1. Beren behatzak ez ahitzeko emaztek zer egiten zuten?
2. Gaxuxa nor da?
3. Gizonetan nor dira bozitore edo ernenak?

Piarres

### (II) ARTHO XURITZEN. 2.

Emaztekiak, gehienak –beren behatzak ez ahitzeko[1]– othe-adarrez eginikako xiriekin[5] ari ziren; gizonak aldiz, sanoki, lan gogorrenetan sorhaiotu[6] erhiekin[7]. Eta, guziek, hostoak burutraino ideki ondoan, hosto hek sorbalda gainetik botatzen zituzten brixtakoan, beren xangar ttikiekin. Meta handi egiten zen horrela artho-xuritzaleen gibelean, behieri geroan janaraztekoak hek ere.

Hotzik ez zuen orai nehork barne hartan, eta hirria hirriaren ondotik zabilan, selauru handian. Jada, bere boz maitea, lepho luxe batean, mahasti-aihena bezala kurumilkatuz, Janpiarre hasia zen kantuz:

*"Artho xuri xuri bi bahetan pasatu..."*

Bainan, berehala, Gaxuxak, Oihanaldeko etxekandreak, ezti eztia erran zion bere xokotik:

"Bertze zerbeit emaguk,(1) othoi, Janpiarre. Ez dakitalarik ongi, uste diat ez den pullitenetarik hik orai eman dukan hoi... eta hemen baituk, gaur, gazteak eta haurrak ere bai".

Eta, gehiagokorik gabe, gogorik hoberenean, hasi zen beraz Janpiarre:

*"Aitak, eman daut dotea,*
*Neurea, neurea!*
*Urdeño bat bere umekin,*
*Oilo koloka bere xitoekin,*
*Tipula korda heiekin,*
*Tipula korda heiekin!*

*Otsoak jan daut urdea,*
*Neurea, neurea!*
*Axeriak oilo koloka,*
*Garratoinak[8] tipula korda;*
*Adios neure dotea!*
*Adios neure dotea!*

Eta guziek betan, Janpiarreren ondotik eman zuten errepika pullita.

Hain xuxen, saskiak berriz ere mukurru[9] betheak zirelakotz, ozkarrean biek betan hartu zituzten Bixentek eta Piarresek. Eta, bertze selaururat, idortzerat, saski hetako arthoak eremaitearekin, Bixentek hirri zafla batean erran zion Piarresi:

"Urdeño, oilo-kolokaz eta tipula-sokaz bertzerik badukek egun batez, nik dakidan etxeko-alaba on bati, eskaintzeko!..."

Eta guziek maiteki hirri egin zuten selauruan.

UKAN. CONJUG. FAMILIÈRE
C.D.O

| | | | |
|---|---|---|---|
| Nik | diat | dinat | = je l'ai |
| Hik | duk | dun | = tu l'as |
| Harek | dik | din | = il l'a |
| Guk | diagu | dinagu | = ns l'avons |
| Zuek | duzue | duzue | = vs l'avez |
| Heiek | die | dine | = ils l'ont |

(1) Emaguk = donne-nous

### (III) ADITZ IKASKUNTZA.

31. Ondotik zabilan. 32. Erran zion
33. Ez dakitalarik 34. Bertzerik badukek.

31. IBILI. Indicatif.

| Présent | | Imparfait | |
|---|---|---|---|
| Ni nabila | = Je marche | Nindabilan | : je marchais |
| Hi habila | = Tu marches | Hindabilan | |
| Zu zabiltza | = | Zinabiltzan | |
| Hura dabila | = | Zabilan | |
| Gu gabiltza | = | Ginabiltzan | |
| Zuek zabiltzate | = | Zinabiltzaten | |
| Hek dabiltza | = Ils marchent etc. | Zabiltzan | : ils marchaient etc. |

32. UKAN. Conj. à dble cplt. Indicatif Imparfait

Objet singulier. Neri = à moi. Compl. Indirect sing

| | | |
|---|---|---|
| Zuk zinautan | = vous me l'aviez | Erraiten zinautan = vous me le disiez |
| Harek zautan | = il me l'avait | |
| Zuek zinautaten | = vous me l'aviez | |
| Heiek zautaten | = ils me l'avaient | |

Hari = à lui

| | | |
|---|---|---|
| Nik nion | = je le lui avais | |
| Zuk zinion | = vous le lui aviez | Erraiten nion = Je le lui disais |
| Harek zion | = il le lui avait | |
| Guk ginion | = nous le lui avions | |
| Zuek zinioten | = vous le lui aviez | |
| Heiek zioten | = ils le lui avaient | |

Zuri = à vous

| | | |
|---|---|---|
| Nik nauzun | = je vous l'avais | Je vous l'avais dit = Erraiten nauzun |
| Harek zauzun | = il vous l'avait | |
| Guk ginauzun | = nous vous l'avions | |
| Heiek zauzuten | = ils vous l'avaient | |